

MORTALA!

HERIOTZARI BURUZ PENTSATZEKO
HIL EDO BIZIKO PROPOSAMENAK

Hilkorrentzako
koaderno bat
Idea: Anna
Juan-Cantavella
eta Ellen Duthie
Ilustrazioak:
Loreta Lion



NOLA DAKIGU
HILDAKO BAT
BENETAN DAGOELA
HILDA?

INTERESGARRIA
AL DA HILTZEAA?

POSIBLE DA
MAITASUNEZ
HILTZEAA?

ASPERGARRIA
LITZATEKE
BETIKO BIZITZEA?

ETA ZUK, ZER
USTE DUZU?



**WONDER
PONDER**

Ikus-filosofia haurrentzat
TTQRTTALO

MORTALA! nazioarteko proiektu bat da, 6 eta 12 urte bitarteko haurrei eskainia, heriotzari buruzko galdera interesgarriak sortu, eta galdera horien gainean mintzatu, marraztu edo idazteko. Ikerlan baten zatia da, 2022an argitaratu nahi dugun liburu baterako (Bai! Liburuek denbora luzea behar dute bizia hartzeko). Koadernotxo hau erabili eta gero —irakurri, solastu, marrazkiak egin, jolastu—,

aukera izango duzu heriotzari buruz jakin nahi dituzun zerak idazteko (edota bizitzari buruzkoak, horiek ere balio dute!). Orrialdea betetakoan, egin argazkia orrialde horri eta bidali hona: wonderpondermortalquestions@gmail.com

Haurrek bidalitako galderen artetik, liburuan sartzeko aukeratuko ditugu batzuk.

ZURE MODUKO HAUR BIZIENTZAKO GALDERA HILGARRIAK

Irakurri galdera hauek. Zu bezain bizirik dauden haurrek eginak dira. Ba al da bereziki gustatzen zaizun galderaren bat? Seinalatu interesgarriak, gustukoak edota barregarriak iruditzen zaizkizun bizpahiru galdera. Zergatik piztu dizute arreta?

Beldurra ematen du hilobian sartuta egoteak?

Besteek uste badute zu hilda zaudela, baina ez bazaude, hilerrian hilko al zara?

Hil zaitezke hitz egiten zaudela?

Infernua erreal da?

Heriotza, amets bat al da?

Lotan nagoenean, zer nago: bizirik ala hilda?

Hiltzen banaiz... nork hartuko ditu nire gauzak?

Interesgarria ote da hiltzea?

Hilda egonez gero, igartzen al da maite diren pertsonen falta?

Hil ondoren, zenbat denbora behar du gure gorputzak deskonposatzeko?

Ba ote da heriotza baino patu okerragorik?

Gustatuko ote zait pizza hil eta gero ere?

Nora joaten dira hildakoak?

Eskeletoek zergatik ez daukate haragirik?

Zergatik hil behar dugu?

Hilda egonez gero, posible da pentsatzea?

Nola jakin benetan hilda zauden ala gorputzak ez dizun funtzionatzen, besterik ez?

Hiltzen garenean... gorputz osoa hiltzen da bat-batean?

Zer jasoko litzaioke astronauta baten gorputzari espazioan hilko balitz?

Nola dakigu hildako bat benetan dagoela hilda?

Gure aitona-amona hilek badute sentimendurik?



Aztertu hitz hauek. Guztiek daukate zerkusia heriotzarekin. Bururatzen al zaizu zuri beste hitzen bat? Idatzi lauki zurietan.



HITZ MORTALAK

gogoa/gorputza ospakizuna gaixotasuna

gorpua momia beldurra

hilerria tristura

harrapakaria zahartzaroa istripua

berraragiztatu arima pandemia ezereza

berpiztu hilzorikoa ondarea dolua suntsipena

mina espiritua haraindia testamentua amaiera

itzulezina deskonposizioa espiritismoa

HERIOTZARI BURUZKO ZER JAKITEARREN EMANGO ZENUKE BIZIA?

Idatz itzazu hemen heriotzari buruz dituzun galderak. Goian emandako hitz mortaletan har dezakezu inspirazioa.



A large rectangular area for writing, framed by a yellow border. The border is decorated with skull icons: a vertical column of 15 skulls on the left, a vertical column of 15 skulls on the right, and a horizontal row of 15 skulls at the bottom.



ZER DUZU NAHIAGO... ZURE BIRRAITONA ALA HISTORIAURREKO EMAKUME BAT BERPIZTEA?

ZENBAT
DENBORA!




ZER DUZU NAHIAGO...?

- ... hilezkorra izatea ala ez izatea?
- ... erretzea, lurperatzea edo momifikatzea?
- ... zeu hiltzea ala asko maite duzun norbait hiltzea?
- ... bat-batean hiltzea, ezustean eta bizkor, ala aurretiaz jakitea badatorkizula heriotza?
- ... lurperatzailea, auzitegiko medikua edo zainketa aringarriak ematen dituen medikua izatea?
- ... fantasma gisa geratzea edo betiko desagertzea?

Orain zeure txanda. Asmatu galdera bat lagunei egiteko: "Zer duzu nahiago..." Galdera barregarria, zaila, zentzugabea edo serio-serioa izan daiteke. Nahi duzuna, baina izan dadila ona!

EGIA ALA GEZURRA?

1. Hiltzeko aukera gehiago dago jai batean egonda paraxutean salto eginda baino ~~E~~ G
2. Munduan 150.000 pertsona hiltzen dira egunero, gutxi gorabehera. E G
3. Gure gorputzeko 300.000 zelula hitzen dira minutuko. E G
4. Ileak eta azazkalek hazten jarraitzen dute hil ondoren ere. E G
5. Walt Disneyren gorpua izoztuta dago, gorpua izoztuei bizia itzultzeko aurkikuntzaren zain. E G
6. Frantzian posible da ezkontzea norberaren senargai edo emaztegai hilarekin. E G
7. Emakumeek bizi-esperantza handiagoa dute gizonezkoek baino, altitude handiko goi-mendietako eremuetan izan ezik, toki horietan bizi-esperantza apur bat handiagoa baita gizonezkoentzat. E G
8. Madagaskarreko magalasi etniaren ohitura da zazpi urtetik behin hildakoak lurpetik atera, haiekin jan, dantzan egin eta apaintzea; eta gero, berriz lurperatzea. E G
9. Gorpuak askoz bizkorrago deskonposatzen dira uretan lurtean baino. E G
10. Japoniako Kyushu uhartean bada emakume bat 152 urte dituen eta familiaren fideo-saltokian lanean jarraitzen duena. E G



ELKARRIZKETA MORTALAK

ORAIN HEZUR HUTSA
NAIZ, BAINA LEHENAGO,
BANITUEN AZALA ETA
MAMIA ERE. ZER GALDERA
DAUKAZU NIRETZAT?



Bi pertsonaia hauek adituak dira heriotzari buruzko gaietan, bakoitza bere erara. Eskeletoak ehunka urte daramatza hilda; banpiroak, ordea, ehunka urte bizirik. Imajinatu elkarrizketa bana egin behar diezula eta zer jakin nahi zenukeen. Idatzi zure galderak hobekien erantzungo dizula uste duzun pertsonaiaren ondoan. Egin galderak garbi, erraz ulertzeko moduan.

BANPIROAK HILEZKORRAK
GARA. ZER DERITZOZU? BADUZU
GALDERAREN BAT NIRETZAT?
ALA XURGATUKO DIZUT ODOLA,
LUZAMENDUETAN IBILI GABE?





AGUR IDEALA

Azken hilabeteotan, pandemia dela-eta, hiletak (baimendu direnak behintzat) ez dira nahi bezalakoak izan. Agian, gutako batzuek imajinatu dugu nola esango genuen agur bestelako egoera batean, edota nolakoa nahi genukeen izatea gure hileta, momentua iristen denean. Zer musika aukeratuko genuke? Zer genuke nahiago: hildakoari eskainitako ospakizuna izatea ala gure tristura konpartitzeko unea izatea? Posible litzateke bi gauzak batera izatea?

Herrialde batzuetan, musika alaia ipintzen dute hileteetan. Beste batzuetan, ospakizunak neurritsuagoak izaten dira. Zenbait tradizioetan, negar egitea ez da sekula begi onez ikusi. Beste zenbaitetan, ordea, erostariei ordaintzen zieten hiletara joan eta negar egin zezaten. Irlandan eta Eskozian ohitura da hiletaren ondoren jai bat ospatzea, eta Ghanan hilkutxa koloretsu bitxietan lurperatzen dute jendea, hildakoaren zaletasunak adierazten dituzten formaz apainduta (gitarrak, itsasontziak, loreak, autoak edota telefonoak!)

Agur ideala diseinatzetik bazenu, nolakoa litzateke? Berdina izango litzateke mundu guztiarentzat, ala pertsonaren araberakoa? Eta maskota batentzako agurra? Nola esango zenioke adio? Marraztu edo deskribatu zure agur ideala.



HERIOTZA AHOZ AHO

NORBAIT HIL DELA ADIERAZTEKO ESAMOLDEAK:

- bertan luze gelditu
- horrek ez du hurrengo kukua entzungo
- arima hortzetan eduki
- gorpu datza
- azkenak egin ditu




BESTE HIZKUNTZETAKO FORMAK, HITZEZ HITZ:

- zangoa luzatu (gaztelaniaz: estirar la pata)
- ostikada jo baldeari (ingelesez: kick the bucket).
- jaiotza-agiria irentsi (frantsesez: avaler son acte de naissance)
- belarrari hozka egin (alemanez: ins Gras beißen)
- beste Buda bat bihurtu (japonieraz: hotoke ni naru - 仏になる).

Enkargu bat egin dizute: esamolde bat asmatzea baten bat hil egin dela adierazteko. Zer bururatzen zaizu?

OHIKO ESAKUNEA:



HERIOTZARI BURUZKO ESAERA ZAHARRAK:

Ezagutzen dituzu esaera zahar hauek? Jolastu zuzen osatzen, edo kontrara, oker osatu eta esaera berriak asmatzen. Hori bai, berriak sortzen badituzu, azaldu esanahia. Adibidez, zer da "Hil eta gero, euri ona?" (Erantzunak azken orrialdean.)

Hil eta gero,
Hilak lurpera,
Jaiok
Nagusi askoren astoa
Hil onak
Hil arte
Hilak
Asto hilari

euri ona.
bizi.
biziak baratzer.
uzkutik oloa.
hiltzea zor.
begia beltz.
goseak hil.
salda bero.




ZURE BIZITZAK ZENTZU GEHIAGO DAUKA EULI BATENAK BAINO?

Pentsatu, irakurri eta hitz egiteko galderaz beteriko orrialdea.

25 EGUN, NIRETZAT,
MUNDIALAK DIRA!

Zer hamar gauza egin nahi
dituzu hil baino lehen?



Zure bizitzak zentzu gehiago
dauka euli batenak baino?
Eta altzifre batenak baino?

Zein da txakur maskota baten
bizitzaren zentzua? Eta txakur
basati baten bizitzarena?

Zein dira zure bizitzari zentzu
gehien ematen dioten gauzak?

Zientzialari garrantzitsu baten bizitzak zure
bizitzak baino zentzu gehiago ote dauka?

Zure bizitzari zentzua ematen dioten gauzak
eta gainerako pertsona guztien bizitzari
zentzua ematen diotenak berberak dira?



Sekula hilko ez bagina, zentzu
gutxiago izango luke bizitzak?

Ba ote dira mundu guztiaren bizitzari
zentzua ematen dioten gauzak?

Bizitza batzuek beste batzuek baino zentzu
gehiago daukate. Zein dira eta zergatik?

Aldatu al da bizitzaren zentzua
pandemia hasi zenetik?

Aldatuko ote litzateke zure bizitzaren
zentzua 30 urte besterik biziko ez bagina?
Eta 300 urtetik gora biziko bagina?

Aldatuko ote litzateke zure bizitzaren
zentzua noiz hilko zaren jakingo bazenu?

Zein dira, zuretzat, bizitzako
gauzarik onenak?



Nola nahi zenuke besteek zu
gogoratzea etorkizunean?

NIRE GALDERARIK MORTALENAK

Azter itzazu koadernotxo honetan idatzi dituzun galdera guztiak eta aukeratu hoberenak; alegia, interesgarrienak, benetan erantzun nahi zenituzkeenak. Kopiatu hemen. Ondoren, egin argazkia orri honi eta bidal ezazu helbide honetara: wonderpondermortalquestions@gmail.com

Ordenagailuan egin baduzu, gorde dokumentua eta bidaliezaguzu, halaber, helbide honetara: wonderpondermortalquestions@gmail.com


Adierazi, ahaztu gabe, zure izena, bizilekua eta adina.

ZURE GALDERA BATEK WONDER PONDER LIBURU BATERAKO BALIO LEZAKE!

ZURE IZENA: _____

ADINA: _____

HELBIDEA ETA HERRIALDEA: _____



KOADERNO MORTAL HAU DOAN JAITSI DEZAKEZU.

Ezagutzen al duzu Wonder Ponderreko beste doako koadernoak?

ESKOLA ri buruz pentsatzeko proposamenak
Elika Durhio eta Daniela Martegui

Zer eragin behar du eta nolakoan zion behar du? Nola bizi izan eskola bere gaitzak? Eta nola bizi?

Zer ikasi duzu gaur egun, orain?

Zein da zure irakasle onena? Zein irakasle onena da zure irakasle onena? Zein irakasle onena da zure irakasle onena?

Zein da zure irakasle onena? Zein irakasle onena da zure irakasle onena? Zein irakasle onena da zure irakasle onena?

WONDER PONDER
Ikus-filosofia haurrentzat

Irakasleak

Zer gertatzen ari da irakasleekin? Zein da irakasle onena? Zein irakasle onena da zure irakasle onena?

Hotela, amakoa?

Zein da zure irakasle onena? Zein irakasle onena da zure irakasle onena? Zein irakasle onena da zure irakasle onena?

WONDER

Eikarritxeta zure irakasleari

1. Zein irakasle onena da zure irakasle onena?
2. Zein irakasle onena da zure irakasle onena?
3. Zein irakasle onena da zure irakasle onena?
4. Zein irakasle onena da zure irakasle onena?
5. Zein irakasle onena da zure irakasle onena?
6. Zein irakasle onena da zure irakasle onena?
7. Zein irakasle onena da zure irakasle onena?
8. Zein irakasle onena da zure irakasle onena?
9. Zein irakasle onena da zure irakasle onena?
10. Zein irakasle onena da zure irakasle onena?

Ipaina / Idazlana

Lagunak, ikaskideak eta eskolako beste piztia batzuk

Zer gertatzen ari da lagunekin? Zein da lagun onena? Zein lagun onena da zure lagun onena?

Eskola
Zer eragin behar du eta nolakoan zion behar du? Nola bizi izan eskola bere gaitzak? Eta nola bizi?

WONDER

Eta adin guztietako haurrei zuzendutako Wonder Ponderreko liburu-jokoak?



Wonder Ponder Ikus-filosofia haurrentzat proiektuak filosofiaren galdera handienetako batzuk luzatzen dizkie adin guztietako irakurleei modu jostagarri eta erakargarrian. Bakarka, lagunen artean nahiz familian, testuinguru ludikoetan edota hezkuntza-esparruan, Wonder Ponder kaxak aztertzeko, irakurtzeko eta pentsatzeko diseinatu dira.



Ikus-filosofia haurrentzat
wonderponderonline.com

Erantzunak "Egia edo gezurra?":
1-E; 2-E; 3-E; 4-G; 5-G; 6-E; 7-G;
8-E; 9-E; 10-G
Erantzunak "Heriotzari buruzko esacera zaharrak":
Hil eta gero, salda bero; Hilak lurpera; Bizialk baratzera; Jarioak hiltzea zor; Nagusi askoren astoa goseak hil; Hil onak euri ona; Hil arte biziz; Hilak begia beltz; Astro hiltari; uzkuhik oloa.

MORTALA! nazioarteko proiektu bat da, 6 eta 12 urte bitarteko haurrei eskainia, heriotzari buruzko galdera interesgarriak sortu, eta galdera horien gainean mintzatu, marraztu edo idazteko. Ikerlan baten zatia da, 2022an argitaratu nahi dugun liburu baterako (Bail Liburuek denbora luzea behar dute bizia hartzeko). Koadernotxo hau erabili eta gero —irakurri, solastu, marrazkiak egin, jolastu—,

aukera izango duzu heriotzari buruz jakin nahi dituzun zerak idazteko (edota bizitzari buruzkoak, horiek ere balio dute!). Orrialdea betetakoan, egin argazkia orrialde horri eta bidali hona: wonderpondermortalquestions@gmail.com

Haurrek bidalitako galderen artean, liburuan sartzeko aukeratuko ditugu batzuk.